



ARANTZAKO UDALA

OSOKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Arrunta

Eguna: 2024.09.06

Ordua: 16:30

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- ALKATEA: Saturnino Larralde Ibarrola, EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio, EH Bildu.
- Itziar Arotzena Bergara, EH Bildu.
- Ana Maeztu Villanueva, EH Bildu.
- Julen Oskoz Elizondo, EH Bildu.
- Andoni Mitxelena Danboriena, EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

- Igor Ugalde Salazar, EH Bildu.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIAK:

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. Servicios Forestales de Dios, S.L.U.k Amekurrun, Argastasoro eta Soraeta parajeetan oihan aprobetxamendua egiteko eskaintza ekonomikoa onestea, hala badagokio.
3. Alkate Ebazpenak.
4. Eskakerak eta galderak.



ARANTZAKO UDALA

1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA.

2024ko abuztuaren 2an osoko bilkura arrunteko akta AHO BATEZ ONETSI DA.

2. SERVICIOS FORESTALES DE DIOS, S.L.U.K AMEKURRUN, ARGASTASORO ETA SORAETA PARAJEETAN OIHAN APROBETXAMENDUA EGITEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ONESTEA, HALA BADAGOKIO.

Idazkariak adierazi du Amekurrun, Argastasoro eta Soraeta parajeetan (1. Lotea) oihan aprobetxamendua egiteko enkantean eskaintzak aurkezteko epea 2024ko abuztuaren 2ko eguerdiko 14:00etan bukatu zela eta interesdun batek ere ez zuela eskaintzarik aurkeztu.

Horrela bada, Arantzako 2024ko abuztuaren 2an egindako osoko bilkura arruntean adostu zen oihan aprobetxamendua egiteko bigarren enkantea arautuko zuen plegu arautzailea eta prozedura abiaraztea onestea, %10eko beherapenarekin.

Bigarren enkante honen iragarkia argitaratu aitzinetik Servicios Forestales de Dios, S.L.U.k eskaintza ekonomiko bat aurkeztu du, hasierako enkantearen prezioa baino baxuagoa, baina bigarren enkantea aterako zen prezioa baino altuagoa. Halaber, eskaintza hau ez da bakarrik ekonomikoa, ustiapen epeari, luzapenei eta ordainketa moduari eragiten dioten zenbait alderdi aldatzen ditu. Hau izanen litzateke egindako eskaintza:

“Honako baldintza hauek adostu dira:

- *12 hilabeteko epean, herritik hurbilen dagoen 2g Laricio rodala ustiatuko da. Epe hori luzaezina izanen da.*
- *Martxoaren 31 baino lehen, 16 egur-loteak banatuko ditugu. Epe hori luzaezina izanen da.*
- *Gainerako mendietan, 12 hilabeteko luzapena kosturik gabe eskatzeko aukera egonen da. Eskatzen den lehenengo luzapenari ez zaio inolako igoerarik aplikatuko; halaber, bigarren luzapena eskatuz gero, agiri arautzailearen 25. klausulan ezarritako igoera aplikatuko zaio, hau da, esleipen-zenbatekoaren % 10.*

Lotea honela ordainduko da:

- *Esleipenaren zenbatekoaren % 30eko abala kontratua sinatzean. (Azken ordainketa egin ondoren itzuli behar da). Abal horrek ez du bazterten plegu arautzailearen 15 e) klausulan xedatutako behin betiko bermea eratzeko betebeharra, nahitaez bete beharrekoa baita ustiapena behar bezala egiteko.*



ARANTZAKO UDALA

- *Esleipenaren zenbatekoaren % 30, lanak hastean. Hau da, mendiaren entrega-akta sinatzen denean (orduan egingo da dagokion faktura). Akta hori ezin izanen da, kontratua formalizatzen denetik zenbatzen hasita. hilabete baino beranduago sinatu, (2/2018 FLren 167. art.).*
- *Esleipenaren zenbatekoaren % 40 ustiapenaren erdian. Nolanahi ere, gehienez 6 hilabeteko epean, mendiaren entrega-akta sinatzen denetik zenbatzen hasita (orduan egingo da dagokion faktura).*
- *Esleipenaren zenbatekoaren % 30 ustiapena amaitzean. (Eta abala itzuliz). Hau da, mendia itzultzeko akta sinatzen den egunean (orduan egingo da dagokion faktura).*

PREZIO HAU ESKAINTZEN DU:

- *LOTEA 115.166,24 EURO (BEZik gabe), AMEKURRUN, ARGASTASORO ETA SORAETA PARAJEKO BASO-APROBETXAMENDURAKO.*
- *Banatu beharreko loteetako egurraren prezioa eta lanak deskontatu egingen dira.*
- *Eskaintza ekonomiko honetan xedatu ez den guztirako, Arantzako herri lurretako Amekurrun, Argastasoso eta Soraeta parajeiko oihan aprobetxamenduaren salmentaren enkanterako plegu ekonomiko-administratiboan arautzailean xedatutakoa beteko da. Plegu hori Arantzako Udalaren osoko bilkurak onartu zuen 2024ko uztailaren 5ean. Era berean, Arantzako Udaleko mendien PAM 2022ren baldintza tekniko partikularren agiria beteko da, Baso Zerbitzuen eta Ehiza Kudeaketaren zuzendariaren ekainaren 7ko 113/2024 Ebazpenaren bidez onartutako oihan aprobetxamendua egiteko."*

Zentzu horretan, idazkariak azaldu du eskaintza honetan adierazitako baldintzek hasiera batean onarturiko plegu arautzaileko zenbait puntu aldatzen dituela. Beraz, nahiz eta hauek legedi aplikagarriaren arabera baimengarriak izan, osoko bilkurak onartu beharko lituzke.

Era berean, Servicios Forestales de Dios, S.L.U. aurkezturiko eskaintza lehenengo enkantea hutsik gelditu ondoren baina bigarren enkantea argitaratu aitzinetik egin denez, Nafarroako Toki Administrazioei buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 166.3. artikuluan xedaturikoaren arabera, baso administrazioari egindako eskaintzaren balorazioa egiteko eskatu beharko zaio.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, legezko kide kopuruaren gehiengo osoa izanik, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

- 1.- Amekurrun, Argastasoro eta Soraetako parajeetan oihan aprobetxamendua egiteko bigarren enkantea, %10eko beherapenarekin, bertan behera uztea.
- 2.- Servicios Forestales de Dios, S.L.U.k egindako eskaintza ekonomikoa onestea.



ARANTZAKO UDALA

3.- Servicios Forestales de Dios, S.L.U.k egindako eskaintza ekonomikoa, akordio honekin batera, Nafarroako Gobernuako Baso Kudeaketaren Atalari helaraztea, dagokion aldeko txostena egin deza.

4.- Aipaturiko baso administrazioak aldeko txostena egiten badu, aipaturiko enpresari horren berri ematea, 7 egun naturaleko epean plegu arautzaileko 15. Klausulan xedaturiko dokumentazioa aurkeztu dezan.

5.- Kontratazio mahaiak aurkezturiko dokumentazioa zuzena dela ondorioztatzen baldin badu, alkateari ahalmen nahikoa ematean Ebazpen bidez oihan enkantearen salmenta behin betiko esleitzeko.

6.- Akordio hau Servicios Forestales de Dios, S.L.U.ri jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

3. ALKATE EBAZPENAK..


2024ko 119tik 136ra Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.

4.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.


Bertze aztergairik izan gabe, 17:00ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,

 2024.09.12
17:29:27
+02'00'

Saturnino Larralde Ibarrola

**Ziurtatzen dut
IDAZKARIA,**

 Data: 2024.09.06
18:38:17 +02'00'

Nagore Madariaga Iriarte